



BIRIKLETA

## BANAKETA ETA KOMUNIKAZIOA

Webgune bat eta sare sozialak izango dira gure komunikazio kanal nagusiak eta banaketa sarearen ardatza. Izan ere, diru-ekarpena egin nahi duten diru-emaileak gure elkartea ezagutzeko aukera izango dute eta bestalde, antolatuko dugun lasterketarekiko partaideei etengabe honen berri izatea ahalbidetuko die.

Alde batetik, sortuko dugun webgunean txirrindu lasterketan parte hartu nahi dutenek izena emateko aukera izango dute, behin hori eginda, guk dortsala eta kamiseta etxera bidaliko dizkiegu, horrela lasterketa egunean prest azaltzeko aukera izango dute partaideek. Hauen banaketari dagokionez berriz, Correos enpresarekin elkarlanean arituko gara. Erosterako orduan produktuaz gain bidalketa gastuak ere gehituko ditugu. Guk bulegotik Correos-era eramango ditugu materialak eta beraiek arduratuko dira banaketaz. Prozesu honen bidez bezeroei produktua beren etxera iritsiko zaie.

Lehen aipatu bezala, komunikazioari dagokionez, gure bezeroekin harremanetan jartzeko komunikazio kanal egokiena interneteko webgune bat izango dela deritzogu, izan ere, bertan on-line denda, elkartearen inguruko informazioa, gure telefonoa nahiz helbide elektronikoa txertatuko ditugu. Horrela, edozein zalantza edo beharren aurrean, gurekin kontaktatuko lukete zuzenean.

Diru laguntzak eskainiko dizkiguten erakunde eta hornitzaileekin, *facetime* bidez arituko gara solasean. Dokumentu garrantzitsurenbat beharrez gero berriz, e-posta bidez bidaliko genieke. Prozesuan oztoporik egonez gero, beraiengana joko genuke inolako arazorik gabe.

Gainera, sare sozialetan ere presentzia handia izango dugu. Jakin badakigu, gaur egun Instagramek eragin handia duela, horregatik, gure proiektuari ateak ireki diezazkiola uste dugu. Elkartearen inguruko informazioa eskuragarri izateaz gain, salmentarako ere tresna gisa erabiliko dugu. Izan ere, sare sozial honen bidez erabiltzaileek zuzenean gure online dendara sarbidea izango dute, gustuko duten produktua erosteko aukera izanaz.




# BIRIKLETA


Plataforma honetan jarraitzaile ugari dituzten pertsonari laguntza eskatuko genieke, izan ere, gaur egun publicitate mota hau gazteengan eragin gehien duena da. Modu honetan ahotsa emango liokete gure proiektuari, batenbatzuk gure lasterketan parte hartzera edo dohaintzak egitea lortuko genuelarik.

Gainera, traola bat sortuko dugu #BIRIKLETA eta partaide, doaitzaile eta laguntzaileek egiten dituzten ekintzak traola erabiliz gure sare sozialetan partehartze aktiboa izan dezakete, horrela beraien jarraitzaileak ere gure proiektua ezagutuko dute.

## INSTAGRAM KONTUA



## WEBGUNEAK



## BIRIKLETA EZAGUTU

Biriketako minbiziaren pairatzen dutenentzat baliabideak eta begirunea lortzeko lan egiten duen elkarteak gara. Gure helburu nagusia gaixotasunaren ikerketa bultzatzeko dirua biltzea eta gizarteko kideen artean kontzientziatzea da. Beraz, hau irakurri ondoren hainbat galdera bururatuko zitzaizkizuen, ezta?

Alde batetik, **zergatik biriketako minbiziak?** Minbizi mota hau ezagutzen den larrikeriarikoa bat da, izan ere, diagnostikaturikoek %90ak ezin dio gaixotasunari aurre egin.

Bestalde, **zergatik BIRIKLETA?** Gure elkartearen izenaren jatorria berezia da; Biri (birikak) eta kleta (gure ekintza nagusia bizikletarekin lotua dagoelako) hitzen baturatik dator.

Eta azkenik, **nola bilduko duzue dirua?** BIRIKLETA EGUNA inizatiba jarriko dugu martxan. Ekaineko azkeneko larunbatean txirridularitza lasterketa solidarioa egitea dugu asmo gisa. Bestalde, Bizum eta Paypal kontuak izango ditugu jendeak nahi duen diru kantitatea doaitzat eman dezan.

Uneoro gure elkartearen berri izateko, eta BIRIKLETA erakundea hobeto ezagutzeko, jarrai iezaiguzue INSTAGRAM-en -@birikleta!



biriketakominbizi@birikleta.eus | Tel: 666-123-444

IZEN-ABIZENAK \*

KAMISETAREN NEURRIA \*

EZ AHAZTU GOGOAK! \*